

goraldiz egingo dan jaiera euskaltzaiñak agertu ditezen.

III.—Azkue jaunak Eñonkariko *modismos* ta *proverbios* irakurri dizkigu.

IV.—Geografirako itz-zerenda Intzagarai-ek dakar, Euskaltzaindiaren onetsipenerako. Aztertu degu itz-zerenda ori ta beste gai batzuek bigaramonerako utzirik otoitzez amaitu da batzaraldia.

---

### **Tolosak'o Udaletxean 1931-ko Agoraren 27-an.**

Jaun abek bildu dira: Azkue maipuru, Olabide, Eguskitza, Intza, Lakonbe, Etxegarai eta urgazletatik Ormaetxea jauna. Otoitz egin da.

I.—Iztegiaren lan-arazotan batzaraldiko astirik luzeena igaro da.

II.—Azkue jaunak Eñonkariko bere lan mamitsua irakurri digu.

III.—Euskaltzaindiak, Meza nagusira joateko, esku artean zeuzkan beste gai batzuek urango batzaratarako utzi ditu eta otoitzez amaitu du batzaraldia.

---

### **Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1931-ko Azaroaren 19-an.**

Euskaltzain abek bildu dira: Azkue maipuru, Olabide, Eguskitza, Altube, Intza, Lakonbe, Elissalde eta urgazletatik Oleaga, Belaustegigoitia eta Ormaetxea. Otoitzez asi-da.

I.—Euskaltzaindiak bere urgazle izentatu du Eyheramendy apaiz jauna.